

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Emakumeen ahalduntze kolektiboa, Nafarroako Gobernuaren martxoaren 8ko kanpainaren ardatz

*Kontseilariak eta NABlren arduradunek emakume eta gizonen arteko Berdintasunaren arloan abiarazitako ekintza nagusien balantzea egin dute*

Asteartea, 2019.eko otsailak 26

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez, "Ahalduntze kolektiboaren bidez Berdintasuna eraikitzen" lemapeko kanpaina abiarazi du emakumeen ahalduntze kolektiboa eta parte-hartze soziala babestu eta bultzatzeko, elkartegintzaren zein sareetako lanaren laguntzaz.

Kanpaina gaur aurkeztu dute Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren arduradunek. Kartelarekin batera, kanpainak ikusentzunezko pieza bat du formatu luzean, informazio honi atxikita dagoena, baita sare sozialetarako [bertsio laburra](#) ere, Nafarroako osoko emakume taldeen bizipen eta esperientzien bitartez emakumeen ahalduntze kolektiboaren prozesua islatzeko xedez.

Emakumeen Parte-hartze Sozial eta Politikorako Nafarroako Estrategiari atxikitako kanpaina honi esker, beste aurrerapauso bat eman eta ahalduntze prozesua itxi nahi izan da, kasu honetan emakumeen ahalduntze kolektiboa landuz eta emakume-elkarteen arteko sareak sortu eta lan-egutegi bateratuak finkatzeak duen garrantzia azpimarratuz, izan ere, prozesu honek emakumeen parte-hartze soziopolitikoarekin areagotzea ahalbidetuko du.

Bideoa zein kartelak Nafarroako Gobernuak zerbitzuen bitartez banatuko dira, eta eskatzen duten Toki Erakunde guztiek jasotzen ahalko dituzte, baita emakumeen elkarteek, ikastetxeek, gizarte zentroek, osasun zentroek eta bestelakoek ere. Bideoa telebistetan, zinema-aretoetan eta sare sozialetan izanen da ikusgai eta kartela prentsa idatzian, hiriko autobusetan eta markesinetan, otsailaren 26tik martxoaren 11ra bitartean.



Ezkerretik eskuinera, Nerea Álvarez, Ana Ollo, Mertxe Leranoz eta Geno Ochando, kanpainako kartelaren ondoan.

## Berdintasuna ardatz

Prentsaurrekoan, kontseilariak eta NABlko zuzendaritza taldeak Nafarroako Gobernuak esparru honetan abiarazitako ekintzen balantzea egin dute. Hartara, Olló kontseilariak gogoratu du Gobernuak “berdintasuna erdigunean kokatu zuela hasiera-hasieratik, eta horrekin batera, NABI berreskuratu zuela, legealdi batez Berdintasuna Familiaren Institutuan sartuta egon ondoren”. Horri esker, adierazi duenez, “berdintasuna **ardatz** bihurtu zen Gobernuaren politketan, eta **zeharkakotasuna** funtsezko estrategia bilakatu zen berdintasun printzipioa exekutiboaren politika guztietan txertatu ahal izateko”. Kontseilariak **Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako Foru Lege Proiektua** aipatu du, izan ere, haren esanetan, arau honek “Nafarroa abangoardian kokatuko du emakumeen eskubideen aldeko borrokari atxikitako Komunitate aitzindari gisa”.

NABlko zuzendari kudeatzaile Mertxe Leranozek **Berdintasun Unitateei** emandako bultzada nabarmendu du, “genero-ikuspegia politika guztietan txertatzen lagundu baitu”. Horrez gain, **toki entitateekiko**, enpresekiko eta gizarte-sarearekiko **elkarlana** ere azpimarratu du “instituzio eta erakunde guztiak inplikatu baititu gizarte-eredu berdinzaleago baten eraikuntzan”. Bukatzeko, Leranozek **Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua berritu** izana aipatu du, parte-hartzea errazteko, baita emakumeek bizitzako esparru desberdinetan duten presentzia bistaratzea helburu duen **Berdinna Sariaren** sorrera ere.

Bestalde, NABlko Sustapen eta Kudeaketako zuzendariorde Geno Ochandok garatutako beste proiektu nagusietako bat nabarmendu du, **Emakumeen Parte-hartze Sozial eta Politikorako Estrategia**, eremu publikoetan zein erabakiak hartzeko guneetan duten parte-hartzea handitzea xede duena. Honexeri atxikitakoak dira **Emakume Politikarien Foroa** eta **EmakumeON-Nosotras** programa, ahalduntze indibidual eta kolektiboari loturikoak. Bukatzeko, zuzendariordeak berariaz azpimarratu du Nafarroako Gobernuaren barnean egindako lana, bereziki **Formakuntza Ibilbidearen** bitartez pertsonalari eskaini zaion formakuntza edota legealdi honetan Gobernuako departamentu guztiak bilduz sortutako **Berdintasunerako departamentu-arteko Batzordearen** lana partekatu izana.

Azkenik, NABlko Plangintza eta Programetako zuzendariorde Nerea Alvarezek, berdintasun printzipioaren zeharkakotasunari helduz, departamentu guztiei eragiten dien proiekturik garrantzitsuenetako bat aipatu du, Genero **Ikuspegia duten Aurrekontuak**, Ogasunak NABlrekin lankidetzan lideratutakoa. Horrekin batera, Nafarroan erabilgarri dauden baliabideak hedatzeko ahalegina azpimarratu du. Horren harira, **Emakumeen aurkako Indarkeriaren Arreta Integralerako Taldeak** bi talde berriren sorrerari esker Nafarroa osora hedatu izana aipatu du, edota **harrera baliabideen** hobekuntza eta **salerosketaren biktima diren emakumeentzako** baliabide espezifiko baten sorrera. Bukatzeko, **Salerosketaren aurkako Nafarroako Foroaren** berraktibazioa eta **emakumezkoen mutilazio genitala prebenitzeko** Protokoloa nabarmendu ditu.



Martxoaren 8ko kartela.